

elkar

UDAZKENA 2021

65. ZENBAKIA

www.elkar.eus



EDORTA *eta* IRATI JIMENEZ

*Nikole bijotzekua eta
Begiak zabalduko zaizkizue
mami handiko saiakerak*

+

JULIA NAVARRO

De ninguna parte, una novela sobre desarraigo e identidad

KALAKAN ETA EUSKADIKO ORKESTRA, ELKARLANEAN

IZEN PROPIOAK:

Marian Rojas · Hedoi Etxarte · Uxue Alberdi · Araiz Mesanza · Elena Martinez Rubio · Aritz Galarraga ·
Nerea Loiola · Adriano de Mata · Iñigo Bolinaga · Antton Olariaga · Josean Gil-Garcia · Iñaki Uria · Josean Morlesin





EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOIA!

Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta oraindik ez zara harpide?

Bete www.irrienlagunak.eus webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

URTEAN
49€



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 304 332 zenbakira deituz

E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz.

www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n izena emanaz.

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!



AMAK NATURA ETA BIDAIEI BURUZKO
IRAKURGAIK DITU GOGOKO.



AITA ZIENTZIA-FIKZIO ZALEA DA.



NIRI, BERRIZ, MAMUEN IPUINAK IKARAGARRI
GUSTATZEN ZAIZKIT.



GURE ZALETASUNEN MOSAIKOA
PIEZA EZBERDINEK OSATZEN DUTE!

JOSEAN MORLESIN



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar

flickr elkartaldea

elkar_taldea

f elkarTaldea

postdata.elkar.eus

ekar 
www.elkar.eus

ekar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)

Telbtxe 11
94 491 66 16

ARRASATE

Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA

Gouverneurs 9
559 59 35 14

BARAKALDO

Merindad de Uribe
944 37 22 76

BASAURI

Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA

Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO

Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Zamudioko ataria Zazpikale

94 416 14 50

Iparragirre 26

94 424 02 28

DONOSTIA

Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6

943 42 63 50

GASTEIZ

San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1

Campus
945 14 16 70

HERNANI

Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN

Colón pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA

Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9

948 17 55 38

TOLOSA

Arostegieta z/g
943 67 35 33



DESCUBRE
**LOS CÓMICS
MÁS ADICTIVOS.**



RRRRAARGH




Síguenos en:






edebé.com



**Liburu miresgarri
bana idatzi dute
Edorta Jimenezek eta
Irati Jimenezek, eta
aitzakia horrekin
elkartu ditugu, Nikole
bijotzekua eta Begiak
zabalduko zaizkizue
saiakezez hitz egiteko.**

EDORTA ETA IRATI JIMENEZ

**Euskal literatura sistemaz idatzi duzu liburu mar-
dul bat, Irati, urtetako hausnarketen emaitza, bai-
na idazten hasi aurretik zuk zeuk bazenuen, nola-
bait, euskal letren munduaren ezagutza, ezta?**

I.J. Baneukan, bai. Idazlea ez ezik, idazle baten alaba
naiz eta urteak daramatzat editore batekin bizitzen –
orain editore ohi batekin, halakorik bada–. Bizipen horiei
esker izugarri aberastu da sistema honi buruz daukadan
ezagutza. Idazle hasiberriekin eta beterranoekin gerta-
tzen dena ikusi dut, genero-arloko analisiak ze injustoak
diren emakumeekin eta ze itsuak gizonekin, ze arazo di-
tugun idazleok editorialekin eta zenbat arazo eramaten
ditugun idazleok geurekin argitaletxeetara. Askok esker-
tzen dut pribilegio hori.

**Zer inpresio atera duzu zuk, Edorta, Iratiren li-
burua irakurrita?**

E.J. Grinaz idatzia dela da esan behar dudana lehena.
Halako grinaz ze, etorri eran idatzia dela ematen duen.

Badakit, oster, testuarekin luzaz jardun izan duena. Zur
eta lur utzi naute, bai erakusten duen jakintzak, bai era-
bili duen ausardiak, biek. Liburuak euria ekarriko du. Bob
Dylan parafreseatuz, “non izan zara, zer ikusi duzu, ene
alaba laztana?”.

**Eta zuk, Irati, zer esango zenuke, Edortaren libu-
ruari buruz?**

I.J. Historian atzera egiten duen lan apasionantea dela,
kalumnien, gezurrek eta injustiziak zornetutako zauria
hartu eta zauri hori orri-ahorekin irekitzen duena, egia
ager dadin bere botere guztiarekin. Irakurleok edertasu-
nezko arrakala batetik sartzen gara, eta apurka-apurka
goaz ezagutzen historia apasionante bat eta emakume
are apasionanteago bat. Isildutako emakume bat zutunik
jarri da, gure artean dago, denok ikusteko eta entzuteko
moduan, bere historia kontatzen. Emozionantea da. Eta
niri dagokidanez, bereziki hunkigarria, aitaren liburua
delako Nikoleren historia kontatzen duena eta horrek

areagotu egiten duelako iraganetik datorren oihartzuna,
gure amumarena, gure birramumarena, Urdaibaiko ema-
kumeena eta, gure artean egon ez arren, nigan eta gudan
dauden emakume guztiena.

**Noiztik ari zinen biltzen Nikolasa Atxikallenderi
buruzko materiala? Eta nolakoa izan zen pan-
demian egunerokoa idaztearen esperientzia?**

E.J. Materiala biltzen Joseba Agirreazkuenaga adiskideak
Argian argitaratu zituen hari buruzko lan biekini hasi
nintzen. Gero bera eta biok gehiagoren bila saiatu gi-
nen. Hortxe daude Josebaren gutun liburu biak, argi-
taratua bata, argitaratu gabea bestea. Idazten hasia
2020ko martxoaren 15eko goizean erabaki nuen, ezin-
bestez etxean sartuta ginel; egun berean lagun bati
eskatu nion libre geneukan halako blog batean sar-
tzeko, irudiekin. Egunak ez zidan ematen! Nirea amo-
rrua! Idazten egunero hamar bat ordu egiten nuen. Pla-
zer handia. Batik bat Nikoleren ordeko sentitu naizelako





“Nikoleren ordeko sentitu naiz eta historia berri bat egiten ari nintzen kontzientzia hartuz joan naiz”

“Plazerez irakurtzeko testu bat egin nahi izan dut eta, era berean, liburu lagungarri bat”



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

NIKOLE BIJOTZEKUA

Edorta Jimenez

Nikolasa Atxikallende, Sabino Arana Goirenen alarguna, pertsonaia ahaztua, baztertua eta laidoztatua izan da, etsaiek ez ezik, baita hurbilekoek eta ahaideek ere. 2020ko itxialdian haren figura berreskuratu, laudatu, eta haren historia kontatzen jarri da egilea, poesiarik onenaren edertasun lirikoaz eta thriller bizkorrenaren intriga guztiaz.

BEGIATZABALDUKO ZAIZKIZUE

Irati Jimenez

Saiakerak behar omen lukeen hoztasunaren kontra, bero bezain sutu ekin dio autoreak euskal letren ajeak identifikatzeari eta haientzako soluzioak proposatzeari, eta berotasun horri esker orriak irentsi darama irakurlea. Debatea piztu nahi duen liburua eta zalantzarik gabe zeresana emango duena.

eta, ez dut ukatuko, halako batean historia berri bat egiten ari nintzen kontzientzia hartuz joan nintzelako. Zer esanik ez artxiboetara fisikoki joateko era izan nuenean. Liburuan kontatzen dudana polizia espagnol "antiterroristaren" gorabehera kontatu ahal izatea ere plazera izan da.

Zuk ere, Irati, aspaldian esan nahi zenituenak esan dituzu saiakera apasionatu honetan?

I.J. Aspaldian esan nahi nituenak baino gehiago, aspaldi pentsatzen nituenak esan ditut eta esan nahi nituen moduan. Gure literaturaren diagnostiko batetik abiatu naiz, baxu gaudela esateko eta, aldaketarik egin ezean, modu larrian egin dezakeela egoerak okerrera. Beste sintoma batzuk ere aipa daitezke, baina aski egiaztatua eta mingarria da irakurleen galera. Horregatik eman ditut azken hiru urteak testu literarioak eta literaturari buruzkoak modu apur bat obsesiboan aztertzen eta liburu honek eskatzen zuen

informazio guztia biltzen. Liburu hau irakurleentzat idatzi dut, idazleentzat, kazetarietzat, kritikoentzat, editoreentzat eta gure sistemak bultzada bat behar duela sinesten duten guztientzat.

Plazerez irakurtzeko testu bat egin nahi izan dut eta, era berean, liburu lagungarri bat. Gutxitan esplikatzeko dugu zer den literatura eta saiatu naiz horri buruz hitz egiten, eta oinarri batzuk jartzen, literatura nola egiten den ikusteko eta literaturan gutariko bakoitzak eta guk guztiok zer egin dezakegun imajinatzeko. Saiatu naiz maite dudana moduan idazten: umorez, amorez, maitasunez eta fedez. Beti izan dira emaitzarik onenak eman dizkidaten osagaiak, eta horiek izan dira liburu hau egiteko literaturaren zeremonia sobrenaturalak eskatu dizkidanak.

Edorta, zure liburuan badago feminismoaren bindikazio bat, eta sarrean aitortzen duzu emakume idazleren baten eskuetan utzi nahi izan

zenuela bildutako materiala. Azkenean zeuk egin izanaz poztzen zara?

E.J. Begira, Nikoleren historia norbaitek kontatu izanak itzel poztuko nindukeen. Saiatu nintzen eta inork ez zidan jaramonik egin, ez zuen zertan. Aurreiritziak tarteko, badakizu. Sabinoren emaztea? Zera... Lan hau aldarria da. Eta bai, poztzen naiz. Ikaragarri poztzen naiz. Orain Nikolasa Atxikallendek askori eta askori garrasi egiten diela sentitzen dut: "Zuok, bai, zuok zikinok, zu, eta zu, eta zu be bai...". Feminismora joz, oster, Nikole lerro bakarra izan da historietan; lerro oker idatzia gainera. Hitzaurrean haren oroimena salbatu diguten emakumeak aipatu ditut. Nikoleren erretratua horiei esker osatu ahal izan dut.

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
Editorea

Antonio Muñoz Molina

Volver a dónde

Una lúcida mirada sobre la España actual a través de la memoria íntima de una familia a lo largo del último siglo.

 Seix Barral



JOSEAN GIL-GARCIA
Mendizalea eta irakaslea



Proposamena

MUNDUA BALOI BATEAN

Nikolas serio demonio jarri da baloiairen aurrean. Demaseko gola sartu nahirik, Kepa lagunari zuzen-zuzen begiratu dio, bi-biak duelu batean baleude bezala. Estutasuna nagusi da narrazioa hastearekin batera. Tentsioa ere, handia. Tupustean, Nikolasek bihotz hartuta, atzeraka hasi da. Ibilian-ibilian, abiada hartu nahi izan du inoizko jaurtiketarik indartsuena egiteko xedez. A zer nolako paradoxa! Atzeraka ibili behar izango du aurrera pausoak egin ahal izateko. Txantxetarako gogorik ez dago, jokoa baitago bere izaera apala, bere munduari begiratzeko modu aparta. Nikolas futbolzalea ez bada ere, jokaldi ederra

borobildu nahi du, indarrez eta irmotasunez. Ez da, beraz, jokoz kanpo egoteko garaia. Aski da berenganako mespretxua eta iraina. Taldeko "kakanarrua" izateari uzteko hautua egina du-eta.

Atzeraka dabilela, munduan barrena itzelko bidaia osatuko du Nikolasen. Protagonistaren joan-itzulia da, hain justu ere, **Patxi Zubizarreta** idazle ordiziarrek baliatzen duena hamaika kontakizun xume, hitz joko bizi, igarkizun ezkutu eta, *tiruriru-tantiruriru*, kantu goxo tartekatze. Ahozko tradizioan oinarritutako altxorren berri emateaz hiru aingeru—edo kasik lau—arduratuko dira. Zaintzaileok hizkuntzarekiko trebezia erakutsi-

ko dute, Nikolasengan arreta jartzen duten artean. Horra hor idazlearen esker oneko ekarpena! Gainera, **Elena Odriozola** ilustratzailearen lan grafikoak sentiberatasunez eta errugabetasunez jantzi egingo ditu narrazioak dakartzan atal guztiak.

Zubizarreta ez da oin puntetan ibiliko Nikolas munduan zehar dabilela. Errealitateari muzin egin gabe, gaur egungo gizarte mailan ditugun kezka, erronka eta bizipenei aurre egingo die, maisuki. *Mundua baloi batean* liburuaren irakurketa egokia da, besteak beste, koronabirusaren pandemiak haur eta gazteei ebatsitako denbora itzultzeko, baita hondatutako emozioak adoretzeko ere.



MUNDUA BALOI BATEAN
Patxi Zubizarreta -
Elena Odriozola
ELKAR

Profila MARTIN UGALDE

MARTIN UGALDEREN ITZULERAK



IÑAKI URIBIA
Kazetaria

Kontatzeko moduko biografia da Martinena. 15 urteko nerabe, 36ko gerratik ihes jo zuen Andoaindik iparraldera. Gurs-eko konzentrazio eremua ezagututa itzuli zen. Gazte. Ama etxean. Aita eta anaia erbestean. Inork ez zion lanik eman nahi aita "gorria" (abertzalea, alde egina) zuelako. **Labordek** eman zion lana, gero, urte askoren itzulian, bere izena eramango zuen Kultur Parkean zegoen lantegian.

"Itzulian nator" esanez jarri zuen Martinek Martin Ugalde Kultur Parkearen lehen harria.

26 urterekin Venezuelara jo zuen familia osoa biltzeko eta han jarraitu zuen hemen *Diario Vascon* hasitako kazetaritza lana. Ogibide bihurtu zuen kazetaritza *Elite* aldizkarian eta aberri bihurtuko zitzaion Venezuela. Familia egin, bertakotu eta posizioa lortu zuen Caracasen. Kazetaritza literaturara egin zuen. Arrakastaz. Bertako erdaraz. Ez zen bertan goxo geratu Caracaseko abertzale erbestereatuen artean.

Venezuelan gailurra jo arren, Euskadi zain zuen. Hogei urtez eraikitako dena itsasorearen bestaldean utzi eta 1969an itzuli zen Euskal Herrira. Hegora hasieran, atxilotu eta venezuelar nazionalitate izanik askatu



ARGAZKIA: AIURRI

ondoren, Iparraldera. **Leizaola**ren erbesteko gobernuko partaide. **Ajuriagerraren** EAJ alderdian lanean, **Alderdi** aldizkaria zuzendu eta egiten zuen sasian...

Modernoaren genuen Martin orduko Europa eta Euskal Herrian. Burgosko epaiketa eta frankismoaren azken urteak genituen. EAJ eta ETA, **Ajuriagerra**, **Monzon**, **Brouard**,

Txillardegia. Denak pil-pilean bizi izan zituen. Euskara batuaren sorrera eta etena. Erdaratik euskarara itzuli zen. Literaturatik kazetaritzara. Historiara beharra ikusiz gero. *Síntesis de la Historia del País Vasco*. **Txillida**, **Oteiza**, **Lezo Urreztieta**... elkarriketatut zituen. **Alderdi**tik **Deiara**, euskarazko atalaren arduradun.

Handia da erdaraz utzi duen literatur eta kazetaritza obra. Handia euskarazko literaturari eta kazetaritzari egindako ekarria. Idatzita utzi zuen bere obra. Baita gutunak ere. Euskal Herrira itzuli eta 20 urteko trantsizioaren ondoren, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera eta bilakaera bizi izan zituen gurekin. Itzali arte.



IRATI JIMENEZ IDAZLEA


LIBURU BOTERETSUEN GENEALOGIA GALDUETATIK GATOZ

Ez dakit zergatik beharko lukeen literaturak justua izan, mundua bera ez denean, baina eguna etorri, egun joan, literaturan era guztietako itsusikeriak gertatzen dira eta ez dela posible uste duenak ez du gogoratu besterik horirik gabeko zulo batean dagoela **Federico García Lorca**, eta markes tituluarekin hil zela, bere jauregian, **Camilo Jose Cela** Nobel sariduna. Euskal literaturara ekarrita, geurea ere sistema aldrebestua dela frogatzeko bada esperimentu erraz bat egiterik. Kritiken Gordailuan begiratu ze iruzkin gutxi dituzten gure klasiko garaikideek (*Abuztuaren 15eko bazkalondoa*, *Babilonia* edo *Obabakoak* bera) eta zenbat, aldiz, inork oroitzen ez dituen guztiz liburu irrelebanteek.

Injustizia batzuk denborak konpondu ohi ditu, literaturak duen tribunalik eraginkorrenak. Sasoiko hierarkia kritikoei, akademikoek, unibertsitateko edo administratiboek goratu dituzten idazle eta lan eskasekin, adibidez, zorrotza eta kupidagabea izaten da. Merezi zutena baino arreta gutxiago bereganatu zituztenekin, aldiz, mugatuagoak dira denboraren botere miragarriak. Eta horietako askotxo pilatzen ari zaizkigu, oraindik literatura zer den apenas dakigun euskaldunoi. Eskastxoak diren lanak koroatzeko prestutasun harrigarria daukagu, eta bikaintasuna ikusteko ezintasun are kezkarriagoa.

Izan ere, ikusten ote dugu zerbait? Ez dakit moroak ote garen baina behelainopean gabiltza. Nago gure azken nobela arrakastatsuenak –**Katixa Agirreren Amek ez dute** (Elkar, 2018) eta **Karmele Jaioren Aitaren etxea** (Elkar, 2019), biak bikainak– hobeto ebaluatu dituela Espainiako sistema literarioak gureak baino. Eta ezin esan munduko sistemarik justuena daukatenean, ez zuten ikusi *On Kixoteren* garrantzia hispanistek seinatu zuten arte eta gaur egun oraindik ez dute aipatu ere egiten **Jorge Manriqueren** poesia liriko bikaina, daukaten garaienetakoa (*Poesías completas*, Espasa, 2014). Baina batek daki ez ote den gurea grabeagoa. Emakumeei dagokionez, adibidez, zer ikusi dugu? Oraindik ia esan gabe dago ze estilo bikaina, oparoa eta apasionantea daukaten gure artean, hemen eta orain, idazten ari diren hainbat emakumek. Badakigu ze ona zen **Alaine Agirreren** lehen nobela boteretsua (*Odol mamituak*, Elkar, 2014) eta ze modu adierazkorrean dakien egiten narratiba **Jasone Osorok** edo lirika **Leire Bilbaok**? Lehenaren *Korapiloak* (Elkar, 2001) eta bigarren *Ettxeko urak* (Susa, 2020) horren adibide. Estiloaren edertasuna da, akaso, gutxien ikusten dakiguna, poesian zein narratiban.

Prestigioa aitortuta daukaten idazleen liburuak onenak ere ez ditugu ongi identifikatzen. Oraindik galdezka ari gara, **Txomin Agirreren** zein den hobea, *Garoa* (Hiria, 2009) edo *Kresala* (Erroa, 2014), lehenbizikoa idazle on baten bigarren mailako liburu bat denean eta bigarrena,



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

gure narratibaren lehen arrakasta triunfala. Horra **Har-kaitz Canoren** kasua ere. Bere liburuen artean, apenas aitortu dugu *Neguko zirkua* (Susa, 2005) **Sarrionandiaren** narratziogintzaren pare dagoela eta *Telefono kaiolatu-an* (Alberdania, 1997) bere narratziogintzaren unerik garaienetakoa asko topa ditzakegula.

Iraganeko klasikoei dagokionez, nik neuk deskubritu berri dut XVII. mendean idatzi zituela **Beñat Gazteluzar** izeneko poetak inoiz euskaraz idatzi diren maitasun olerkirik garaienetakoa, *queer* analisiaren ikuspuntutik liluragarriak ere badirenak; eta XX. mendean badirela euskarazko bi nobela handi, gure narratibaren historiak

gutziz ahazturik dituenak, **Augustin Anabitarteren** *Donosti* (Hiria liburuak, 2009) eta *Poli* (Hiria liburuak, 2009), lehena eldarniozko Donostia liluragarri baten kontakizun ezin modernoagoa, **Saizarbitoriaren** *Hamaika pauso* ezinbestekoari (Erein, 1995) aurre hartzen diona; bigarrena, gaztetxoentzako eleberri apasionantea, **Long John Silver** euskaldun bat oparitzen diguna.

Konponduko ote ditu denborak gure itsusikeriak eta gure itsusikeriak, atzera begiratzen duen bere garondoko begi magikoarekin? Ez genuke horren zain egon beharko. **W.H. Auden**en poema gogoangarriak dioten moduan denborak ez baitugu ezer esango ez bada “esan nizun”.



FOTOGRAFÍA: TXERTOIA

Iñigo Bolinaga, aventajado *mugalari* de la frontera entre la historia y la literatura, nos propone en esta ocasión la novela *Somos comunión*, espléndida recreación de la Segunda Guerra Carlista vista por una familia ligada al caserío.

Preséntenos la novela, por favor.

Está ambientada en la última guerra carlista y narrada desde el punto de vista de los protagonistas, cuatro hermanos de una familia rural de Bizkaia.

Es una novela de aventuras...

Sí, busca ser ágil y, por encima de todo, entretenida. Pero puede leerse también como novela psicológica y como fresco histórico. Como novela psicológica, los personajes son quienes narran lo que les sucede en una especie de confesión íntima reflejo de sus sentimientos profundos, sus frustraciones, sus miedos, sus anhelos y sus mezquindades. El lector o la lectora empatizará con ellos más o menos, pero siempre tendrá ocasión de conocer sus razones. Como fresco histórico, describe con rigor los hechos y la forma de vida de la época.

¿Es una crónica de la guerra desde el punto de vista de los perdedores?

No. Entre los carlistas había de todo. A mí me interesa dar voz a esos caseros pobres que no pueden sino reaccionar con las tripas ante una situación que les desborda.

Los liberales son reflejados como la parte negativa...

La novela sigue el argumentario de los carlistas vascos, quienes identificaban el liberalismo como el responsable de la transformación del mundo tradicional en uno en el que no encontraban acomodo. Es lógico, pues, que los liberales aparezcan como el alter ego social negativo, lo cual me parece refrescante porque suele ser al revés. En demasiadas ocasiones se ha presentado a los carlistas como defensores del rey absolutista, de la religión más rancia y, en definitiva, de la antimodernidad, lo cual los ha convertido en el imaginario popular en malos e incluso tontos, por actuar contra sus propios intereses. En Euskal Herria, no tanto, dado que defendían también los fueros, pero la visión más común sigue siendo muy estereotipada. Y lo que he pretendido ha sido dar voz a aquellos hombres y mujeres, para que expresen sus razones y dejen en evidencia que ni eran malos ni eran tontos ni actuaban en contra de sus intereses. Eso no quiere decir que tuviesen razón o la tuviesen en todo.

¿El título tiene alguna vigencia?

Juega con el término que, tras la derrota, tomará el car-



**SOMOS
COMUNIÓN**
Iñigo Bolinaga
TXERTOIA

lismo para definirse, "comunión", asociándolo a la idea de que cada individuo forma parte de una imprecisa entidad superior transgeneracional, que lo protege pero también le exige, lo cual choca radicalmente con el liberalismo. En este sentido, el modo en el que los caseros de la novela defienden los fueros o la religión católica, al margen de lo que hoy nos pueda parecer, responde perfectamente a la idea de defensa de lo sentido como propio –sea esto cierto o no–, algo sin cuya existencia intuyen que dejarían de ser lo que son. Ante esa amenaza, la comunidad se rebela, mostrando una firme voluntad de ser, de seguir siendo. Creo que, por encima de ideologías, esa lógica está presente en la sociedad vasca actual.

Marc Legasse decía que dentro de cada vasco habitaba un anarquista. ¿Quizá también habite un carlista?

En cierto sentido, yo diría que sí.

KARMELE URRUTIA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/319hg7i>





MANDAMENTU HIPERMODERNOAK

EGUNGO INERTZIAK ZALANTZAN JARTZEN

Iñigo Martínez Peña

Gure garaia, gure mundua eta gure burua ezagutzen laguntzeko paregabea

elkar www.elkarargitaletxea.eus

MARIAN ROJAS

En tiempos inciertos, leer evidencias que auguran la posibilidad un futuro mejor para cualquiera es, cuando menos, aliviador. Marian Rojas Estapé acaba de publicar *Encuentra tu persona vitamina* (Espasa, 2021), un libro en el que, inspirada en testimonios recogidos a lo largo de su carrera como psiquiatra, vertebra una suerte de guía para existir, y vivir, con consciencia y en equilibrio. Una narración conciliadora con la imperfección del ser humano y su capacidad para gestionar su mente y sus emociones, y aprender de ellas.

Leo en el apartado "Sobre mí" de su página web que "se puede aprender a ser feliz".

La felicidad exige en primer lugar conectar de forma sana con el presente. Aprender a ser feliz significa comprender la mente y las emociones y entender cómo funcionamos ante el estrés o el desafío. Las relaciones humanas son fundamentales para ser felices, puesto que nos ayudan a encontrar el equilibrio necesario en la vida y ese bienestar nos acerca más a la "felicidad".

FOTOGRAFÍA: CARLOS RUIZ



"No me gusta esta necesidad impuesta de ser felices a costa de todo"

¿Qué opina sobre la explotación del Positive Thinking, que parece presionarnos para que seamos felices ocurra lo que ocurra?

Existe una obsesión por encontrar la felicidad en esta vida. Ya lo decía el Quijote, "la felicidad no se encuentra en la posada sino al borde del camino". No me gusta esta necesidad impuesta de ser felices a costa de todo, ya que cualquier persona sufre por algún tema de su vida (salud, dinero, familia...). No conozco una biografía sin heridas y sin lucha. La felicidad plena no existe en este mundo. Lo importante es gestionar lo que nos sucede de la mejor manera posible y disfrutar de las cosas buenas que nos pasan. La felicidad plena no existe en este mundo. Si eres optimista y positivo aciertas con tu actitud ante la vida, pero es un reduccionismo considerar que eso te va a mantener al margen del dolor y el sufrimiento que necesariamente aparecerán tarde o temprano.



**ENCUENTRA
TU PERSONA
VITAMINA**
Marian Rojas Estapé
ESPASA

"Somos las decisiones que tomamos". ¿Está de acuerdo?

Muchas decisiones nos influyen, pero no todas determinan nuestro destino. La vida es una constante elección. En mi opinión existen dos temas cruciales: la carrera que uno elige, ya que influirá en los aspectos profesionales de la vida y a qué dedicaremos la mayor parte de nuestro tiempo y esfuerzo y, por encima de todo, la pareja que elegimos. Vuelvo al Quijote "quien en el casar acierta, en nada yerra". Ante cualquier disyuntiva, grande o pequeña, siempre recomiendo seguir no sólo el corazón y la intuición –muy útiles– sino también la cabeza y el consejo de las personas más cercanas.

También podríamos decir que las personas con las que elegimos compartir nuestras vidas trazan nuestra existencia.

Por supuesto. Como profesional observo a diario en mi consulta que el amor es el centro de la vida del ser humano. No sólo la pareja que elegimos, sino la familia que nos viene dada y los amigos que hacemos constituyen "nuestro mundo". Saber elegir la pareja, saber cuidar a las personas de nuestro entorno y ser persona vitamina para los demás, todo ello marca de forma indeleble la existencia.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/2V4qGWR>



LAURA GALLEGO
VIDA Y MUERTE.
ORO Y SANGRE.
ASÍ HABLA EL PODER DEL
ETERNO EMPERADOR.



ADRIANO DE MATA

1937an, Euskal Herriko 30.000 haur bat bidali zituzten erbestera, itsasontziz, gerratik ihesean. Zer gertatu zen ume horiekin? Adriano de Matak (Deustu, 1984) ibilbide horietako bat berreraiki du *Sanrokeetarako, etxean* (Txalaparta) bere lehen eleberrian. Itzultzaile eta bidaiari amorratua, egun Montrealen bizi da Adriano, postari lanetan.

Zure lehenengo eleberrirako, gerrako umeen gaia aukeratu duzu.

36ko gerrak betidanik obsesionatu nau, ez bakarrik Euskal Herriaren etorkizuna errotik aldarazi zuelako, baita nire familiarena ere. Eta umeak beti dira gerra guztietako ahaztuak. Umeen ebakuazioen berri izan bezain las-ter harrapatu ninduen gaiak.

Lekunberriko hiru anai-arreba dira protagonista. Egiazko pertsonaietan oinarritu zara?

Testigantza asko irakurri eta entzun ditut eta bereziki deigarria iruditu zitzaidan Erresuma Batuan bizitza ateratzea lortu zutenen bizitza. Haur gehienek (guztiek ez esatearren) Euskal Herrira itzuli nahi zutela kontuan hartuta, itzuli ez zirenen historia interesatzen zitzaidan batez ere. Bereziki arreta eman zidan Pirmin Aldabaldetrekuzarautarrarenak: *Royal Balleteko* dantzari nagusi izatea lortu zuena. Protagonista nagusia benetako Pirmin horretan oinarritu dut. Anaia-arrebak asmatuak dira guztiz, baina betiere benetako testigantzetatik abiatuak.



ARGAZKIA: TXALAPARTA

“Itzuli ez ziren gerrako haurren historia kontatu nahi izan dut”

Gerrako umeak Frantziara, Mexikora, Belgikara, SESBera eta Ingalaterra eraman zituzten. Zuk Ingalaterrara joan zirenen bidaia kontatu nahi izan duzu.

Ingalaterrara itsasontzi bakarra joan zen, *Habana*. Eta abiatu ziren lau mila ume horien artetik, 250 bat han geratu ziren betiko. Gainera, Ingalaterrarena berezia iruditu zitzaidan hasiera-hasieratik: esku ez hartzeko itunaren ondorioz, Erresuma Batuko ezein gobernuak, ezein udalek ez zuen sekula xentimorik jarri. Diru guzti-guztia norbanakoei eta gobernuarekin zerikusirik ez zuten erakundeek jarri zuten. Bestalde, Ingalaterrako erbestea beste herrialdeetako baino gutxiago ezagutzen dela iruditzen zitzaidan.

Detalle asko ematen dituzu. Nola dokumentatu zara?

Dokumentazioa oso urria da Euskal Herrian. Galesen eta,



SANROKEETARAKO, ETXEAN
Adriano de Mata
TXALAPARTA

batez ere, Ingalaterran lortutakoari esker dokumentatu naiz. Hainbat unibertsitatetako dokumentazio-funtsez gain, han badago elkarte bat (Basque Children of '37), lan itzela egin duena testigantzak biltzen, han geratutako umeak elkartzen, topaldiak antolatzen, gaia ezagutarazten... Oro har, Euskal Herrian baino interes handiagoa dagoela iruditu zait.

Hemen gutxi ezagutzen dela uste duzu?

Bai, oso-oso gutxi. Pentsa, niri gerra eta gerraostea interesatzen zaizkidan arren, kasualitatez izan nuen ebakuazio horien berri. Lotsagarria iruditzen zait eskolan horren aipamenik txikiene ere entzun ez izana. Horixe bera Estatu Batuetan gertatu balitz, film, liburu eta monumentu ugari izango zituzketen haur haiek dagoeneko. Hemen, Gregorio Arrienek lan itzela egin du, baina hortik kanpo, ezer gutxi. Ingalaterran askoz gehiago landu dutela iruditzen zait, oro har interes handiagoa dagoela.

KAROLINA ALMAGIA
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
<https://bit.ly/3x76lx3>



NO SUBESTIMES EL TALENTO DE UN GRUPO DE ABUELOS

Más de 2.000.000 de lectores ya forman parte de El Club del Crimen de los Jueves



“Me parece vergonzoso el trato que se da a los emigrantes”

JULIA NAVARRO

FOTOGRAFÍA: JUAN MANUEL FERNÁNDEZ

De ninguna parte, escrita por Julia Navarro, que ha seducido a millones de lectores con sus anteriores novelas, reflexiona sobre el desarraigo y sobre la búsqueda de identidad. Los protagonistas de esta novela, publicada por Plaza & Janés, son Abir Nasr, a cuyos padres asesinó una noche el ejército israelí, y Jacob Baudin, que participó en aquella misión que le atormentará de por vida, cuando cumplía con el servicio militar obligatorio. Las vidas de estos dos hombres, tan distintas, discurrirán de forma paralela en esta historia que, con el integrismo religioso de fondo, profundiza en la naturaleza humana.

¿Cómo son Abir y Jacob?

Son dos personajes desarraigados, que se ven abocados a tomar una serie de decisiones, a llevar a cabo una serie de acciones, con las que íntimamente ni siquiera están conformes. Yo no disculpo a ninguno de los dos, pero sí intento buscar las razones, los porqués, que llevan a las personas a hacer determinadas cosas.

Abir se enamora de Marion, una mujer europea y empoderada. La relación no parece sencilla.

Sí, surge ese choque cultural porque él viene de un lugar

en el que el papel de la mujer es distinto y se encuentra con que sus compañeras del liceo son muy conscientes de sus derechos y de que viven en una sociedad en la que las mujeres gestionan su propia vida, y a él eso le produce un auténtico shock porque no sabe manejar la situación con una chica que, sencillamente, es libre.

En la novela hay otros personajes femeninos importantes, cada uno con un grado de libertad.

Sí, Nora, prima de Abir, hace todo lo posible por integrarse. Ella lucha con uñas y dientes para hacer suya esa



DE NINGUNA PARTE

Julia Navarro
PLAZA & JANÉS

libertad, lo cual la convierte en una marginada dentro de su propio entorno. Solo su madre, aunque no la entiende, la apoya porque es consciente de que han llegado a una sociedad distinta y a pesar de que ha recibido una educación muy tradicional, comprende las ansias de libertad que tiene su hija. Este personaje, Fátima, es uno de mis favoritos.

De ninguna parte, muestra Molenbeek, el barrio tristemente célebre por el atentado de Bruselas.

Intento explicar cómo es el mundo de los emigrantes, como se van creando guetos, cómo se van agrupando porque se sienten más seguros entre gente que tiene sus mismas pautas culturales y religiosas, y cómo termina habiendo barrios en los que hay una vida paralela al resto de la ciudad. Resulta muy difícil entrar en esos barrios, no por problemas de inseguridad, sino porque es un territorio en el que ellos se sienten seguros y los demás, inseguros, y se produce esa incompreensión entre los que llegan y los que están. En Europa no se ha encontrado el medio de integrar a la gente que viene de fuera y me parece absolutamente vergonzoso el trato que se les da a los emigrantes porque no basta con rescatarlos, después no sabemos qué hacer con ellos y se les da un trato inhumano.

TXANI RODRÍGUEZ
Periodista

Las mejores
lecturas
de este otoño,
ya en edición
bolsillo



booket

ARITZ GALARRAGA

Aritz Galarraga (Hondarribia, 1980) memoria ariketa egin du *Gogoan dut* (Pamiela, 2021) liburuan. Editore, kritikari, zutabegile edo elkarrizketatzaile lanetan ibilitakoak bilduramaratu ditu bilorik gabe gomutak.



GOGOAN DUT
Aritz Galarraga
PAMIELA

***Gogoan dut* memorien biltegia izan daiteke, baina, ariketa literarioa ere. Nola aukeratu zenituen estila eta forma?**

Abiapuntua izan zen erabat pribatua: material biografiko bat pilatu nahi nuen, gero nonbait erabiltzeko, idazten ditudan prentsa zutabeetan-eta; baina ez printzipioz liburu batean. Eta horretarako Joe Brainarden *I remember* hartu nuen eredu, irakurri nuenean zirrara berezia eragin zidan memoria liburu: oroitzapen bakoitzak "I remember" esapidearekin hasten du. Gauza da oroitzapen mordo bat pilatu nituenean, bostehun inguru, liburu bat ikusten hasi nintzela, egon zitekeela tonu bat, ahots bat, oroitzapen guztiak josiko zituena. Eta hor hasi zen bigarren fasea, oroitzapen segida soila lan literario bilakatzeak asmo izan duena.

“Lan literario bat sortzea zenez helburua, bertigorik ez dut sentitu, momentu guztian distantzia afektiboa izan baitut, nahiz material erabat autobiografikoa izan”

Adiskidetasuna, miresmena, sexua, autokontzeptua, aitatasuna... Bertigorik eman ahal dizu memoriaren tiraderan dituzunak askatzeak?

Lan literario bat sortzea zenez helburua, bertigorik ez dut sentitu, momentu guztian distantzia afektiboa izan baitut, nahiz material erabat autobiografikoa izan, ia fik-

ziozkoa balitz bezala erabili dudalako. Eta hori izan daiteke, hain zuzen, literaturaren balioetako bat, material sensiblea izan daitekeena, gure oroitzapenak diren bezala, beste modu batera aurkeztea ahalbidetzen duela, irakurlearentzat ere baliagarri eginez.

Eta ahanzturaren tiraderan, ordea, zenbat geratu dira?

Beti da gehiago ahazten duguna, gogoratzen duguna baino, bestela ezin izango genuke egunerokoan aurrera egin. Eta, ondorioz, kanpoan geratu diren oroitzapenak gehiago dira, liburuan bildu direnak baino. Gainera, ez dut egin nahi izan memoria liburu ortodoxo bat: ariketa exhaustiboa baino, garai, giro, belaunaldi baten argazkia da emaitza. Seguru liburu hau beste uneren batean idatzi izan banu, erabat diferentea izango zela.

Askatze neurtua izan al da?

Askatzea, eta barka erredundantzia, erabat librea izan da, ez diot mugarik jarri memoriari, momentu bakoitzean nahi izan duena bota du. Gero neurria eman nahi izan diot oroitzapen bildumari literatura gisa ezagutzen dugun korronte horretan sartzeko, literaturak berezkoak dituen arauetara ekarri, izan zedila lan literario lehen kolpean ezagugarri bat.

Baldin bada gogoan duzunik baina sekula idatziko ez zenukeenik, zergatik uste duzu dela?

Literarioki funtzionatzen ez duelako, batez ere. Badakit liburuak klabe pertsonalean irakurriko duen jendea dagoela, baina ez dut publikatu ego kontu bategatik, edo nire bizitza berezia dela uste dudalako. Ez zait interesatzen literatura terapia bezala, are gutxiago idazlearen-tzako terapia bezala.

Batzuetan izenak ageri dira, beste hainbatetan itzalen susmoa. Zergatik batzuen izena bai eta beste hainbatetan ez?

Liburuak ez da kontu kitatze bat, ez du zentzu horretan pertsonaletik ezer, eta oroitzapenak irakurketa ahalik eta unibertsalena izatea nahi nuen, irakurleak ere bere burua bertan islatuta ikus dezan. Ahalik eta anbiguoena ere bai, kasu batzuetan, jolas literarioa areagotzeko. Izen-abizenekin agertzen direnak pertsonaia publikoak dira, eta, beraz, ez dut espero haien partetik epaitegirako deirik.

Ba al da garrantzitsua irakurleak gogoan izatea idatzi bitartean?

Idaztea eta, bereziki, publikatzea, ekintza uste baino so-



ARGAZKIA: PAMIELA

“Liburuak ez da kontu kitatze bat”

zialagoak dira, liburu batek behar du irakurle bat, testua, eta barka bigarren erredundantzia, irakurtzeko, interpretatzeko, osatzeko. Idatzi bitartean ni naizen irakurleak izaten dut gogoan, hau da niri gustatu behar zait, gutxi asko, idatzi dudana hori. Eta gero inguruan ditudan irakurle on batzuei pasatzen diet, haien iritzia ezagutzeko. Filtro horiek pasatzen baditu, esan nahi du hor kanpoan agian egon daitekeela liburuak preziatuko duen inor.

Liburuak idatzi eta performance gisa, Ibon RGrenkin batera oholtzaratu duzu. Pasarteak musika-rekin ahokatu dituzue eta bada sorpresa ezagunik horien artean...

Bai, eta emaitza oso ederra da, batez ere Ibon RGren talentuagatik: liburuan agertzen diren hainbat abestiren bertsioak egiten ditu, gitarra soilarekin. Asmoa da, liburu aurkezpen zurrunetatik aparte, ondo pasatzea eta jendeari ondo pasaratzea, liburu baten argitaratzea festa bat ere izan daitekeela adieraztea. Oso erantzun ona izan dugu orain arteko emanaldietan.

LEIRE PALACIOS
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
<https://bit.ly/317Z2D2>



NEREA LOIOLA

Haur literaturatik helduenera salto egin du Nerea Loiolak *Epizentroa* (Erein) ipuin liburuan. Zazpi ipuin idatzi ditu, zazpi unibertso azaleratzeko.

Eguneroko istorio txikiek josten dute *Epizentroa*.

Giro horretan gertatzen direnak pizten didate idazteko grina; agian, inor ohartu gabe gertatzen direlako askotan. Izan naiteke ni, izan zaitezke zu. Gure burua ikus dezakegunez, errazago jartzen gara amildegi horretan, lurrikararen barrenean. Ohartu naiz lokatz horietan mugitzea gustatzen zaidala: zehaztasun txikietan, keinuekin gauza bat iradoki baina beste zerbait esanez... Lurrikara emozionalak istorio txikietan, baina pertsonaiek –eta irakurleek– sentitzen duten dardara sekulakoa da!

Eta zazpi ipuinak batzeko *Epizentroa* izenburua. Zergatik *Epizentroa*?

Ohikoa den moduan, narrazioetako batek ematen dio izenburua liburuari. Garbi ikusi nuen, liburuaren osotasunari erreparatu nionean, pertsonaia guztiek bazutela zerbait amankomunean: lurrikara bat gertatzen ari zen beraien bizitzetan edo izandako lurrikara baten erreplikak sentitzen ari ziren. *Epizentroa* lurrikara gehien sentitzen den lurrazaleko gunea da; beraz, izenburu egokiagorik?

Gurasotasuna, harremanak, desioa, ezinak... Horiek guztiek osatzen dute liburuak. Zeren bila aritu zara?

Nire abiapuntua agertoki batzuk eratzea izan zen. Dena den, istorioak sortu ahala konturatu nintzen bazeudela, ustezko normaltasun horren barruan, lurrikara mordoxka bat; eta baita sarri errepikatzen ziren gai batzuk ere. Lurrikara horietako batzuk onak izan daitezke, ez da dena drama, baina lurrikara on horiek ere dardarka jartzen gaituzte.



ARGAZKIA: IMANOL EPELDE

“Trama zalea naiz, eta gustuko ditut thrillerra, nobela beltza eta misterioa”

Tentsioa sumatzen da ipuinetan.

Irakurlea hasieratik harrapatzea gustatzen zait. Ni trama zalea naiz, eta gustuko ditut thrillerra, nobela beltza eta misterioa. Irakurle bat gatibatzeko tentsio puntu horrek egon behar du. Heriotza eta hilketak egon gabe, tentsioa bilatu dut istorioak eraikitzerakoan. Ipuinean zehar giro hori mantendu eta bukaeran gora egitea nahi izan dut, irakurlea ezustean harrapatzeko.



EPIZENTROA
Nerea Loiola Pikaza
EREIN

Ingeniaritza mekanikoa ikasi zenuen eta matematikako irakaslea zara lanbidez. Zerk bultzatu zintuen idaztera?

Nik uste egokiagoa dela galdetzea zerk bultzatu ninduen ingeniariitza ikastera, ja ja ja.

Zure lehen helduentzako liburuak da hau. Beste-lako idazkera bat erabili duzu. Eroso aritu zara?

Bai. Gustatzen zait erritmoa lortzea, esaldi oso laburrekin edo hitzekin jolastea. Inazio Mujika editoreak liburuaren aurkezpenean esan zuen bezala, "lotsagabe" aritu naiz. Ez dakit zer iritzi edukiko duen jendeak, baina askatasuna eman diot neure buruari, eta hizkuntza soila eta efizientea erabiltzen saiatu naiz. Uste dut funtzionatzen duela, narrazioak diren heinean, erritmoa ematen diolako kontakizunari.

Eta orain zer? Zer duzu buruan?

Buruan gauza asko, denbora daukat gutxi! Eusko Jaurlaritzako sorkuntza beka bat eman berri didate gazteen-tzako eleberri bat idazteko eta horrekin ari naiz. Idatzi, idatzi eta idatzi!

ANA ABARISKETA
Kazetaria

27 MILLONES DE LECTORES
LA CONOCIERON CON LA CHICA DEL TREN

DÉJALO TODO
VUELVE PAULA HAWKINS

Planeta



ELENA MARTINEZ

Egun gorrietan saiakera liburuaren hogeita bost ataletan, mota askotako gaiak jorratzen ditu Elena Martinez Rubio egileak: historiaren pasarte ezezagunak, gaur egungo mundua, euskararen egoera eta abar. Zehatz eta zorrotz jorratu ere, baina hizkera argi eta adierazkorrean azaldurik: zer pentsaturik ematen duten liburu horietako bat da.

"Sigi-sagako gogoetak" da liburuaren azpitu-lua. Zergatik?

Aspaldi irakurri nuen espainiarrak Patagoniara iritsi zirenean saiatu zirela han bizi zirenetako batzuk harrapatzen Espainiara eramateko, baina ihes egitea lortu zuten, eta espainiarrek tiro egiten zietenean sigi-saga egiten zutela, korrika zuzen egin beharrean. Badirudi animalia batzuek ere berdin egiten dutela ihes egiten dutenean. Hori da ideia: sigi-saga ibiltzea, ihes egitea, ez pentsatzea lerro zuzen bati jarraikiz.

Gaiak aukeratzeko ere sigi-saga ibili zara.

Bidera irten zaizkidan gauzak jorratu ditut. Gai batekin topo egin, eta hasten naiz horren inguruan sakontzen, irakurtzen, informazioa bilatzen eta abar. Egia da liburu-an gai desberdinak elkartzen ditudala; badute lotura bat baina ez da hain agerikoa.

Liburuaren lehenengo ataletan historiara jotzen duzu, iraganera, eta, askotan, zapalkuntza pairatutako herriak, nazio edo erlijio gutxiengoak eta,



ARGAZKIA: ANDONI CANELLADA - FOKU

“Zapalkuntza da historiaren ezaugarri nagusia”

oro har, jazarriak izan diren giza multzoak ageri dira. Zergatik?

Horrelako gaiak ez direlako hainbeste ezagutzen. Historian, irabazleek beti ezkutitzen dute gertatutakoa, eta gauza asko lurperatuta gelditzen dira.

Testuok irakurrita, emango luke zapalkuntzak definitzen duela gizakien historia.

Dudarik gabe, historiaren ezaugarri bat da. Nagusia, esango nuke nik.

Zure liburuan agerikoa da filosofian doktore zarelara eta jakintzaaren arlo horretan bide luzea egin duzula. Munduaz pentsatzea beharrezkoa izaten jarraitzen du?

Nola ez. Hala ere, gogoeta egitea ez da sustatzen. Ez dute



EGUN GORRIETAN
Elena Martinez Rubio
ALBERDANIA

nahi nork bere kabuz pentsatzea eta hausnarketa egitea gertatzen ari denaz, antolamendu politikoaz edo dena delakoaz. Joera hori baztertu egiten da; adituek, hots, boterea dutenek erabakitzen dute denon izenean.

"Euskarak mendebaldeko filosofia aberastu" egin dezakeela diozu. Zergatik?

Filosofia mintzairaren bidez egiten da, hizkuntza batean. Euskarak mundu ikuskera bat islatzen du, hitzetan eta egituretan, eta, alde horretatik, ekarpen desberdina egin dezake. Adibidez, liburuan huts eta gogo kontzeptuen inguruan Anjel Goenagak idatzitakoa aipatzen da. Filosofian hainbesteko zeresana eman duen gorputzaren eta buruaren arteko banaketa hori mailegu bat da; euskaraz, gogo hitzak beste ikuspegi bat jasotzen du

Euskara euskaratik garatzea proposatzen duzu.

Bai, orain askotan kanpotik ari garelako. Erdarari autoritatea aitortzeko joera dugu; erdara da itzala duen hizkuntza. Gutxi garelako, kolonizatuta gaudelako edo konplexuak ditugulako, baina benetan ez dugu sinesten euskarak gaitasuna duenik munduari eusteko. Daukaguna galtzen ari gara, eta nahita gainera, kanpotik datorren edozein gauza hobea iruditzen zaigulako.

GOTZON HERMOSILLA
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
<https://bit.ly/3it3va0>



Vuelve el fenómeno literario

SALLY ROONEY

El amor y la belleza ante un mundo incierto

A LA VENTA
EL 9 DE
SEPTIEMBRE

penguinlibros.com

Disponibile
en ebook



HEDO ETXARTE

Kotxe arrunt bat poemako kotxea bihurtzen duen poetak, linaje ideologikoz mintzo den poetak, hirugarren liburua plazaratuko du laster. *Sortaldekoak* du izenburu eta aurreko biek izan zuten ahots ezberdin biei kaso egin gabe, hirugarren batez da osatua. Gironako kanpin batean, Pariseko aireportuko korridoreetan eta Donostiako Gros hondartzan izandako solas baten isla ez perfektua da hemen duzuen.

Bretchek esanda eta zuk hirugarren honetara ekarria: "Honezkero zaurian minik ematen ez duenean, orbanak ematen du min".

Bai, zer gertatzen da zauria ixten den toki horretan? Zerk ematen dio entitate poema bati? Zer da idaztea ez bada oroitzenak bisitazioa? Eta bisitatzen dugun toki hori, genealogia hori, ez al da, ez al dira beti errekreazio bat?

Bisitano edo maleta egiten zabilatzala, zeren bila zabilatzala?

Kasualitatea aurkitu behar dut...

Baina ba al da kasualitatea aurkitzerik? Ez al dugu, normalean, berarekin topo, estropezu egiten? Benetan aktiboki bila daiteke?

Bulkada sentitzen duzu. Poema momentu batean behar

duzu bukatu. Baliteke zuk bizitutako horrek garrantzi handia izatea zure barrenetan, zure linaje, zure eternitatean baina ez du entitate poetikorik. Biolina izan daiteke Ford Escort hori edo Audi hura baina garrantzi handikoagoa baina entitate poetikoa duena kotxea da. Eta errekonozitzen, ameto ematen baduzu, kotxe arrunt hori, lagunentzako, irakurlearentzako izango da beti *poemako kotxea*.

Mirua oraindik "harrapakinen bila ari da"?

Poema batean diot negarrez ari naizela ez baitut nahi gure txakur bastarta, gure *Lua* begirada tristeko izaki lasterra, inoiz hil dadila, baina, egia esan, animaliekiko interes falta izan dut beti. Gizakia misterio bat bada, are misterioetsuagoak dira animaliak. Ziur naiz kanpinean zaudela bertaratu diren kaletarrei txoriei edo zomorroi buruz entzuten diezunak ez duela inolako zentzurik. Seguru askotan nagi



SORTALDEKOAK
Hedo Etxarte
SUSA

abandonatzen direla haize korronteetan. Seguru plazera ezagutzen dutela. Horrexegatik idatzi dut nik: "Zergatik uste dugu animaliek egiten duten guztia dela bizirautea? Eta miruak bailara zeharkatu badu guk begiratzen dugun arrazoi berarengatik?".

Hannah Arendtek pentsatua eta zuk, zure *Soi-nuen ispilua* poemaren ikur bihurtu: "Heriotza da bizitako bizitzarengatik ordaintzen dugun prezioa. Miserablea litzateke prezio hori ordaindu nahi ez izatea".

Munduak Hannah filosofoa ezagutzen du. Ez hainbeste poeta. Berak esanda, poema horiek ariketa pribatuak ziren. Ez omen zuen nahi inork inon argitaratzea. Ez dakit ba, nik uste, poeta orok nahi dugu jendeak gure berri izan dezan. Eta badakit Arendthen lan filosofikoak zenbat zor dion bere poesia ezkutukoari.

Hirugarren hau idazteak zertaz salbatuko zaitu?

Idazteak ez nau, ez zaitu, ez gaitu salbatuko baina justizia egingo dut hirugarren honekin, honetan. Justizia inkluso anafora nola erabiltzen jakin nahian hain sarri bisitatzen ditudan Louise Glück, Sharon Olds eta Emily Dickinson poetekin. Justizia nire arbasoak bizi ziren Merced karrikako aspaldiko seme-alabekin. Ondorengorik gabe hilerrian edo deserrian bukatu ziren horiekin: juduak, ijitoak, bandera gorriari fidelak izan ziren horiekin; Merced karrikatik gatz han bizi gara. Han hilko. Baina bihar gehienentzat izango da argia (...) Nahiz eta gaua izan.

BEGOÑA DEL TESO
Kazetaria

EDITORIAL RENACIMIENTO

Memorias póstumas de Ramón y Cajal que dan una visión del panorama español de su tiempo. 19,90 €

Manuel Azón íntimo, reunidos El jardín de los frailes, La corona y La velada en Benicarló. 23,90 €

Una antología de mujeres poetas en torno al dolor desde Rosalía de Castro hasta nuestros días. 12,90 €

Se analiza Las dos memorias de Semprún, destacado documental sobre la Guerra Civil Española. 19,90 €

Testimonio literario de Max Aub con valor de testamento moral. 39,90 € (disponible desde el 20/09)



KOMIKI TXOKOAREN UHINA

Gero eta gehiago dira Komiki Txokoa atundu duten Elkar liburu-dendak. Helduen komikiari presentzia eta ikusgarritasuna emateko asmoz, eremu propioa zedarritu diote. Lehenengoa Donostiako Fermin Calbeton kalekoa izan zen, baina laster baten gehiago etorri dira: Donostian bertan Bergara kaleko liburu-denda, Bilboko Iparragirrekoa... Gasteizko San Prudentzion bazegoen komikiarentzako espazio bat eta orain egokitzen ari dira. Uhina geldiezina da eta aurki helduko da Iruñera ere.

Komikiaren txoko berria leku gozagarri gisa jaio da. Bisitariak zain ditu bederatzigarren artearen emaitzarik onenak. Tartean dira, jakina, Euskal Herrian eta euskaraz ekoiztitakoak.

Osagarri gisa, helduentzako mahai-jolasak ere aurkituko ditu.



KOMIKI NOBEDADEAK:

JARRAITU INURRIARI ●
Unai Elorriaga - Alex Orbe
(HARRIET)

GIDEON FALLS 6 ●
Jeff Lemire - Andrea Sorrentino
(ASTIBERRI)

CORTO MALTÉS. ●
LA CASA DORADA DE SAMARCANDA
Hugo Pratt
(NORMA)

ELGETA, SASI ARTEAN ●
Koldo Izaguirre - Dani Fano - Garluk
(EHTE/IKASTOLAN ELKARTEA)



Liburua eta digitalizazioa



Digitalizazioak kultur munduan izan duen eragina handia izan da, kultura ulertzeko, bizitzeko eta egiteko moduak aldatuz doaz modu oso bizian.

Agerikoa da, batez ere, ikus-entzunezkoen eremuan gertatu den aldaketa. Musika eta zinea bizitzeko erak asko aldatu dira. Duela urte batzuk, musika entzuteko diskoak behar ziren, eta haiek entzuteko gailuak, edo filmak zinema aretoetan ikusten ziren, geroago etorri zen bideoak erosi edo alokatu eta etxean ikusteko aukera. Digitalizazioak ekarri duen saltoa izugarria izan da, eta gaur egun, edukira iristeko ez dago disko edo bideo beharrik, ikus-entzunezko kultura eskaintza streaming bidez datorkigu, ez da produktu fisikorik behar, ez da zertan zinema areto batera joan, dena dugu eskura oinarritzko eta ezinbesteko bihurtu zaigun gailu batean, eskuko telefonoan, ez bada ordenagailuan. Ikusten denez, aldatu ez den gauza bakarra horixe da, gailu baten beharra, tresnak behar ditugu edukia jasotzeko, eta edukia bera lainoan dago.

